

**UDALAK 2011ko EKAINAREN 1EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BATZORDEKIDEAK:**

**ALKATEA:**

Marian Beitialarrangoitia Lizarralde and.

**ALKATEORDEAK:**

Idurre Lucas Ezkioaga and.  
Juan Ignacio Arrieta Egilegor jn.  
Usoa Barrutiabengoa Olazabal and.  
Unai Erroitzenea Gamio jn.

**ZINEGOTZIAK:**

Juan Carlos Plazaola Burugain jn.  
Izaskun Txintxurreta Ibabe and.  
Izaskun Ezeiza Olazabal and.  
José Pérez Dominguez jn.  
Jose Ramón Chica Ramirez jn.  
Estefania Morcillo Cerdan and.  
Andoni Amonarraiz Gómez jn.  
Jose Antonio Cuesta Sole jn,  
Iñaki Arratibel Olaziregi jn.  
Iñaki Barrio Sagastume jn.  
Beatriz Fernandino Goitia and.  
M<sup>a</sup> Luz Anglada González and.

2011ko ekainaren 1ean ez ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Marian Beitialarrangoitia Lizarralde alkate andrearen lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Pello Odriozola Zubizarreta idazkariordea.

**KONTU-HARTZAILEA:**

Antxon Garcia Nadal jn.

**IDAZKARIORDEA:**

Pello Odriozola Zubizarreta jn

**1.- AKTA ONARTZEA:** 2011-02-24, 2011-03-31 ETA 2011-04-11. 2011ko otsailaren 24an, 2011ko martxoaren 31n eta 2011ko apirilaren 11n egindako bileren aktak onartu dira.

**2.- UDALAREN LARRIALDI PLANA.** - Udalerrian larrialdi egoeraren bat gertatu eta pertsonak, ondasunak nahiz ingurumena arriskuan egonez gero, larrialdi egoera horiei erantzun koordinatua emateko antolakuntza ezartzen du Udalaren Larrialdi Planak.

Aztertu da Pertsonaleko batzordeak 2011eko maiatzaren 25ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- Udal Larrialdi Plana onartzea.

**3.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAK EMANDAKO 287/11 EPAIAREN BERRI EMATEA, UDALAK JARRITAKO 226/11 APELAZIOARI BURUZKOA BAITA (APELAZIOA 836/10 ZENBAKIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA DELA ETA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZITARAKO DONOSTIAKO 3. EPAITEGIAK EMANDAKO 1083/2010 AUTOAREN AURKAKOA DA).** - Udalbatza Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 287/11 epaiaren jakinaren gainean dago.

**4.- AURREKONTUETAKO KREDITU ALDAKETARAKO 8/2011 ESPEDIENTEA, HERNANIKO UDALEKO AURREKONTUA.** Indarrean dagoen udal aurrekontuari dagokion eta 8/2011 zenbakiarekin identifikatzen den kredituen aldaketarako espedientea ikusita, gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidezkoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, espediente hori bat dator aplikatu behar zaion araudiarekin, zehazki Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluan eta 2011 ekitaldiko Aurrekontua Egitaratzeko Arauaren 5.1 artikuluan ezarritako baldintzekin.

Aztertu da Ogasun eta Ondare – Kontuetarako Batzordeak 2011ko maiatzaren 30ean emandako irizpena.

Alkate-lehendakari andreak irizpenaren bozketa egin du. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (Beitialarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and eta Ferdinandino and).
- Aurkako botoak: 8 (Chica jn., Morcillo and., Perez jn., Amonarraiz jn., Cuesta jn., Arratibel jn., Barrio jn., eta Anglada and.).
- Abstentzioak: bat ere ez.

Horiek horrela, hau erabaki da

1.- 8/2011 zenbakiko kredituen aldaketarako espedientea onartzea, gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidezkoa eta indarrean dagoen udal aurrekontuari dagokiona, kapituluka banatutako laburpen honen arabera

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
4	Transferentzia arruntak	2.293.389	90.000	2.203.389
	GUZTIRA	2.293.389	90.000	2.203.389

Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	217.015	90.000	307.015
	GUZTIRA	217.015	90.000	307.015

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoan Kontu-hartzaitza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea.

**5.- UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA: PROZEDURA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIO PROZEDURA ONARTZEA. UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA: PROZEDURA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA.** – Udal eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko espedientea bideratu da.

Aztertu dira Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Aldi Baterako 2. Xedapenak eskatzen dituen Administrazio baldintza berezien agiria, baldintza teknikoaren agiria, lan arriskuei aurre hartzeko agiria, fiskalizazio ekonomikoaren txostena eta txosten juridikoa.

Aztertu da Zerbitzu Publiko, Merkataritza, Turismo eta Kiroletako batzordeak 2011ko maiatzaren 30ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Udal eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko espedientea onartzea. Kontratazio hori arautuko duten administrazioaren baldintza partikularren agiria, baldintza teknikoaren agiria eta laneko arriskuei aurre hartzeko agiria espedientean jasota daude.
- 2.- Kontratazioaren gastua onartzea, ekitaldi honetarako: 1.198.000€ € (BEZ barne), partida honen kontura kontabilizatzea: 6.0500.227.01.000.00 "Udal eraikinen garbiketa kontratua".
- 3.- Etleipena egiteko prozedura irekia hastera.

**6.- FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALAK IZAPIDETU BEHARREKO ARGINDAR HORNIDURAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTERA ATXEKITZEA.** - Otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentrala eratu zen.

Hernaniko Udalak bat egin du Kontratazioen Zentralarekin, 2011ko apirilaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

Aztertu da Kontratazioen Zentralak izapidetu behar duen lehen espedientea, argindar hornidurari buruzkoa.

Aztertu dira Argi eta Ur Zerbitzuko buruak eta Kontratazio eta Ondare teknikariak espediente horri buruz egindako txostenak.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralak izapidetzekoa den argindar hornidurarako kontratazio espedientea onartzea eta Hernaniko Udalak espediente horren ondoriozko esparru-akordioarekin bat egin dezala onartzea.

**7.- HERNANI" MUSIKA ESKOLA PUBLIKOKO ZUZENDARITZA TALDEA BERRITZEKO AKORDIOA.** - 2011ko abuztuaren 31n bukatuko da Hernani Musika Eskola publikoaren zuzendari eta idazkari karguen agintaldia (zuzendaria: Joxean Goikoetxea Maritxalar eta idazkaria: Amaia Aldalur Goikoetxea).

Irakasle klaustroak proposatu du Musikako Eskolako zuzendari Iñaki Eguren Etxabeguren izendatzea eta idazkari, berriz, Amaia Aldalur Goikoetxea.

Eskolaren antolakuntzarako komenigarria da zuzendaritza berriak bere karguak ikasturte hasieran bereganatzea, hau da, 2011ko irailaren 1ean.

Iñaki Eguren eta Amaia Aldalur irakasle titularrak ez direnez, komeni da hau gaineratzea: bai zuzendari eta bai idazkari izendapena bi urtetarako izanik, bi urte horiek igaro baino lehen aldi baterako irakasle izateari utziko balote, zuzendari eta idazkari izendapena besterik gabe baliorik gabe geratuko litzatekeela.

Aztertu da Pertsonal Batzordeak 2011ko maiatzaren 25ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Iñaki Eguren Etxabeguren eta Amaia Aldalur Goikoetxea Hernani Musika Eskola Publikoaren zuzendari eta idazkari izendatzea, hurrenez hurren. Hona hemen izendapenaren baldintzak:

- 1.- Agintaldia: 2011ko irailaren 1etik 2013ko abuztuaren 31ra.
- 2.- "Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudian" aurreikusita daude bien zereginak.
- 3.- Eguren Etxabeguren jaunak, zuzendari kargua dela-eta, indarrean dagoen lan hitzarmenaren 17. mailako soldata jasoko du, eta astean 8 eskola ordu izango ditu izendatutako lanpostu honetan aritzeko.
- 4.- Aldalur Goikoetxea andreak, idazkari kargua dela-eta, indarrean dagoen lan hitzarmenaren 15. mailako soldata jasoko du, eta astean 2 eskola ordu izango ditu izendatutako lanpostu honetan aritzeko.
- 5.- Eguren jaunak eta Aldalur andreak, Udaleko funtzionarioen plantillako irakasle titularra ez direnez, agintaldiak irauten duen bitartean aldi baterako irakasle izateari utziko baliote, zuzendari eta idazkari izendapena besterik gabe baliorik gabe geratuko litzateke.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 18:05 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu dut.